

Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa euskaldundu!

LPZ-tan H.E.2-an bakarrik plazak!

Lanbide Heziketa eta Bigarren Hezkuntza euskalduntzeko urratsak ematen jarraitu nahi du LABek, martxoan abiatutako kanpainari jarraipena emanez hainbat asanblada egin ditugu lanbide heziketako zentroetako zuzendaritza eta langileekin.

> LABek dituen datuen arabera taulakoak dira HE2-ko lanpostu eskaintza baxuena duten zentroak.

Hezkuntza Sailarekin batera, Zuzendaritzen betebeharra ere bada ikastetxeak euskalduntzeko planak egitea eta euskarazko lanpostu eta hezkuntza eskaintza sustatzea. Zuzendaritzak lanpostuak euskaldundu ditzaten hainbat asanblada egiten ari gara ikastetxez ikastetxe; bai zuzendaritzekin horretarako bitartekoak eta laguntza eskainiz, bai langileekin ere.

Ikasturte hasierako esleipenetan, ordezeko lanpostu guztiek 2. hizkuntz eskakizuna izatea eta euskara planak garatzea eskatzen dugu, langile publiko guztiak euskalduntzeko. Plantilen euskalduntzeak, zikloen eskaintzen euskalduntzean izango duelarik eragina. Euskarazko eskaintza altuagoa exijitzen diogu Hezkuntza Sailari.

IKASTETXEA	PL1	PL2	PL2 PLAZEN EHUNEKOA
CIFP Náutico Pesquera De Bermeo (Bermeo)	23	0	%0
Arkaute Nekazaritza LHII (Vitoria-Gasteiz)	21	0	%0
IES Federico Baraibar BHI	56	10	%15
CIFP Murgia LHII (Zuia)	19	5	%21
CIFP Construcción LHII (Vitoria-Gasteiz)	49	14	%22
CIFP Blas de Lezo LHII (Pasaia)	27	9	%25
CIFP Emilio Campuzano (Bilbo)	78	35	%31
CIFP Repelega (Portugalete)	41	21	%34
CIFP Hostelería (Galdakao)	22	13	%37
CIFP Santurtzi (Santurtzi)	75	52	%41
IES Martín de Bertendona BHI	44	32	%42
CIFP Ciudad Jardín LHII (Vitoria-Gasteiz)	56	40	%42
CIFP Elorrieta-Erreka Mari (Bilbo)	81	58	%42
CIFP Escuela de Hostelería (Leioa)	39	29	%43
CIFP Laudioalde Lanbide Eskola LHII (Laudio/Llodio)	41	32	%44
CIFP Barakaldo (Barakaldo)	95	81	%46
CIFP Hostelería LHII (Vitoria-Gasteiz)	24	27	%53
CIFP Construcción ³ n Bizkaia (Arrigorriaga)	19	22	%54
CIFP Bidasoa	36	50	%58